

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

INGURUMEN SAILA

6854

90/2008 FORU DEKRETUA, urriaren 14ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan sai arreek aziendei egindako kalteengatiko ordainak xedatzen dituen arautegia onartzen da.

Arabako Lurralde Historikoan sai arreek etxe-aberetan egindako kalteengatiko ordainak arautu ziren, maiatzaren 10eko Diputatuen Kontseiluaren 37/2005 Foru Dekretuaren (ALHAO, 2005eko maiatzaren 30a) bidez.

Indarrean sartu zenetik egun arte ikusitakoak foru dekretu hori berriro aztertzea eta aldatzea gomendatzen du; hain zuzen ere, araututako kalte-ordainak eskuratzeko prozedura hobetzeko, dirulaguntzak era objektiboagoan banatzeko eta ezarritako kalte-ordainak eguneratzeko.

Sai arrea (*Gyps fulvus*) interes bereziko espezie izendatu zuen Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak, hau da, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa arautzen duenak. Era berean, Basa Hegaztiak Zaintzeari buruzko 79/409/CEE Zuzentarauak, 1979ko apirilaren 2koak, ere jasotzen du l. eranskinean.

Saia espezie nekrofagoa da, batez ere, eta jateko premia larria duenean baino ez omen ditu hiltzear edo odol jariora dela-eta ahul dauden animaliak erasotzen. Oro har, erasotuak eme erditu berriak izaten dira.

Kalteak zerbitzu publikoek ondo edo txarto jardun dutelako gertatzen ez direnez gero, sai arrea galzorian dagoen espezie izendatzeko eskumena duen administrazioak hartu beharko lituzke bere gain espezie horrek eragindakoak ordaintzeko beharra, administrazioaren erantzukizunari buruzko printzipioekin bat etorri.

Dena den, saiek noizean behin egiten dituzten erasoek Arabako abeltzainengan egonezina sortzen dutenez gero, Foru Aldundiak egoki iritzi dio kalteak berak ordaintzeari, harik eta sai arrea galzorian dagoen espezie izendatzeko eskumena izan duen administrazioak behar hori bere gain hartzen duen arte. Administrazioaren erantzukizunari buruzko printzipioekin bat etorri, kalte-ordainak arautzean, kontuan hartuko da, hala erditu berria delako, nola gaixorik edo... delako, arriskuan dagoen aberea ukulura ez eramateak berekin dakarrela zenbait arrisku onartzea.

Bestalde, aintzat hartu behar da abelazkuntza estentsiboak lagundu egiten duela denontzat interesgarri diren larreak eta habitatak iraunarazten. Horiek horrela, Arabako zenbait mendi Natura-2000 Sareko Batasunaren Intereseko Leku izendatu dira.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Xedea

Foru dekretu honek sai arreek (*Gyps fulvus*) Arabako Lurralde Historikoan bizirik dauden abereei eragindako kalteengatiko ordainak arautzea du xede.

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE

6854

DECRETO FORAL 90/2008 del Consejo de Diputados de 14 de octubre, que aprueba la normativa reguladora de la indemnización de los daños causados al ganado por los buitres leonados en el Territorio Histórico de Álava.

Mediante el Decreto Foral del Consejo de Diputados 37, de 10 de mayo de 2005, publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, de fecha 30 de mayo de ese mismo año, se reguló el régimen de indemnizaciones de los daños causados sobre ganado doméstico, por los buitres leonados en el Territorio Histórico de Álava.

La experiencia acumulada durante el tiempo transcurrido desde su vigencia aconseja la revisión y modificación del mismo, con el fin de mejorar los procedimientos para acogerse a las indemnizaciones previstas, poder aplicar más objetivamente las subvenciones estipuladas y actualizar las indemnizaciones establecidas.

El buitre leonado (*Gyps fulvus*) es una especie declarada de Interés Especial por el Decreto 167/1996, de 9 de julio, del Gobierno Vasco, por el que se Regula el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora Silvestres y Marina. Asimismo está incluida en el Anexo I de la Directiva 79/409/CEE, de 2 de abril de 1979, relativa a la Conservación de las Aves Silvestres.

El buitre es una especie necrófaga y sólo en ocasiones perentorias de necesidad alimenticia parece haber atacado a animales aislados moribundos o debilitados que presentaban aparentes pérdidas de sangre, por lo general en momentos inmediatamente posteriores al parto.

De acuerdo con los principios que inspiran la responsabilidad administrativa, y ya que no se trata de lesiones que sean consecuencia del funcionamiento normal o anormal de los servicios públicos, debería ser la Administración competente para declarar una especie amenazada quien asumiera las indemnizaciones correspondientes a las lesiones que causare la especie declarada.

Sin embargo, ante la situación de inquietud que sucesos esporádicos de ataque de buitres producen en los propietarios de ganado en Álava, la Diputación Foral considera oportuno, aunque sea temporalmente hasta que se produzca una situación de justicia indemnizatoria por parte del Órgano competente para declarar esta especie amenazada, subvenir a esta situación singular asumiendo una indemnización que, como se ha dicho, mitigue el posible daño causado. Se debe de tener en cuenta también, de acuerdo con los principios que inspiran la responsabilidad administrativa, a la hora de regular esta indemnización, la tácita asunción del riesgo que supone la no retirada del ganado en circunstancias de riesgo, como son el parto complicado o la enfermedad.

Por otra parte, debe de reconocerse el valor que la ganadería extensiva bien manejada, conlleva en la conservación de los pastizales y hábitats de interés comunitario, por los que ciertos montes de Álava han sido incluidos como Lugares de Importancia Comunitaria LIC, de la Red Natura 2000.

Por lo expuesto, y a propuesta del Diputado Foral de Medio Ambiente y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy

DISPONGO:

Primero.- Objeto

El objeto del presente Decreto Foral es regular la indemnización de los daños causados al ganado vivo por los buitres leonados (*Gyps fulvus*) en el Territorio Histórico de Álava

Bigarrena.- Kalte-ordainen zenbatekoa

Dekretu honetako 1. eranskinean adierazitako balioespen baremoaren arabera zehaztuko da saiek abereei eragindako kalteengatik ordaindu beharreko kalte-ordainen zenbatekoa.

Kalte-ordain hori erdira muriztea egongo da, baldin eta zauritutako edo hildako aberea ordurako aहुलदुता edo ezinduta eta txarto zaindutako aberea izan bada.

Kalte-ordainak eskuratu ahal izateko, animalien identifikazioaren eta osasunaren arloan indarrean dauden arauak bete beharko ditu abereak.

Erasoa mendi publikoetan gertatzen bada, Mendien Foru Arauak mendi publikoetan bazkan aritzeko adierazitako baldintzak ere bete beharko ditu abereak. Kalte-ordainaren onuradunak ez du zerga zorririk izango eta, bai, auzo betebeharrak beteta.

Hirugarrena.- Salbuespenak

Egoera hauetan abereei egindako kalteek ez dute kalte-ordainik izango:

a) Erasoa egin eta 24 ordu igarota eman zaionean horren berri Arabako Foru Aldundiari.

b) Animalia erasotutak usteltze-prozesu nabarmenean daudenean.

c) Animaliak gaixorik egon edo zaharrak direnean.

d) Egoera fisiologiko txarra dela-eta autodefentsarako ahalmena urrituta duenean.

e) Aberea saiek hil dutela argi eta garbi adieraztea ezinezko denean edo heriotzaren arrazoa zalantzakoa denean.

f) Animalien identifikazio, babes eta osasun arloko eta mendien eta nekazaritzarako laguntzen arloko arau-hausteengatik abeltzaina irmo zigortu denean kaltetua izan den aurreko lau urteetan.

Laugarrena.- Prozedura

Hona kalte-ordaina jaso ahal izateko prozedura:

a) Saiek abereari eraso egin diotela jakin ondoren, 24 ordu igaro baino lehen jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiari, Ingurumen Zuzendaritzako langileek edo horrek eskuordetutakoek horren gaineko informazio guztia jaso dezaten.

b) Aurkituriko lekuan bertan utzi eta estali behar dira hildako animaliak, sarraskijaleek berritri eraso egin ez diezaieten. Horrela, heriotzaren zergatia ahalik eta erarik objektiboenean egiaztatu ahal izango da.

c) Kaltetutak 15 egun izango ditu eraso gertatu zenetik aurrera kalte-ordaina eskatzeko. Eskaera inprimakia –Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan dago eskueran– Ingurumen Zuzendaritzan aurkeztuko du. Eskaera egoki betearekin batera egoki deritzen zernahi agiririk aurkeztuko du.

d) Ingurumen Zuzendaritzak dagozkion egiaztapen teknikoak egin eta dagozkion ebazpena emango du, jasotako informazioan eta eskatzaileak aurkeztu dituen agiritan eta gainerako probetan oinarrituta. Horretarako, hiru hilabete izango ditu eskera jasotzen denetik aurrera.

Gehienez, hiru hilabete izango dira prozeduraren gaineko ebazpena emateko eta jakinarazteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 42. artikuluan xedatutakoetarako. Epe hori igaro eta berriazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskaerari ezetza ematen zaiola esan nahi du, halaxe xedatzen baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan.

Bosgarrena. Zehapenak

Onuradunen batek iruzur eginez gero, legozkiokoen kalte-ordainetarako eskubidea galduko du, eta 5 urteko epean ezin izango ditu eskatu ere egin. Orobat, hala badagokio, bidegabeki eskuratutako

Segundo- Cuantía de la Indemnización

La cuantía de la indemnización pertinente por daños causados por buitres al ganado se determinará de acuerdo con el baremo de valoración establecido en el Anexo 1 de este Decreto.

Este baremo podrá ser reducido en un 50%, cuando se compruebe que el daño ha sido ocasionado sobre ganado debilitado o disminuido en facultades que no se encuentre debidamente custodiado.

El ganado, para poder ser objeto de indemnización, deberá haber cumplir las normas vigentes en materia de identificación y sanidad animal.

Siempre que el suceso tenga lugar en montes públicos, el ganado deberá cumplir, además, con los requisitos previstos en la Norma Foral de Montes para el pastoreo en montes públicos. El ganadero beneficiario de la indemnización deberá estar al corriente de sus obligaciones fiscales y vecinales.

Tercero.- Excepciones

En ningún caso serán objeto de indemnización los daños a las reses en los siguientes supuestos:

a) Que el ataque haya sido comunicado a la Diputación Foral de Álava después de 24 horas de producido.

b) Que los animales afectados se encuentren en avanzado estado de descomposición.

c) Que se trate de animales enfermos o décréptos.

d) Que tengan afectada su capacidad de autodefensa por un estado fisiológico anómalo.

e) Que no fuera posible determinar la veracidad de su muerte por ataque de buitres o que la misma ofreciera dudas razonables sobre sus causas.

f) Que el propietario del ganado haya sido sancionado en firme por la comisión de infracciones en materias de identificación, protección y sanidad animal, montes o ayudas agrarias en los cuatro años anteriores al hecho.

Cuarto.- Procedimiento

El Procedimiento para acogerse a la indemnización será el siguiente:

a) Una vez conocido un ataque de buitres al ganado, en un plazo máximo de 24 horas éste se pondrá en conocimiento de la Diputación Foral de Álava para que personal de la Dirección de Medio Ambiente o de la entidad en quien se delegue, pueda recoger toda la información posible al respecto.

b) Los animales muertos no serán movidos del lugar donde han sido encontrados, debiendo ser obligatoriamente cubiertos para preservarlos de sucesivas acciones carroñeras con el fin de poder verificar lo más objetivamente posible la causa de su muerte.

c) En el plazo máximo de 15 días desde la fecha del ataque, el interesado formulará solicitud de indemnización ante la Dirección de Medio Ambiente en los impresos habilitados al efecto, existentes en las Oficinas Comarcales Agrarias, cumplimentando los datos demandados y adjuntando cuanta documentación considere oportuna.

d) La Dirección de Medio Ambiente, sobre la base de la información recogida y de los documentos y demás medios de prueba aportados por el solicitante, tras las comprobaciones técnicas oportunas, adoptará la resolución que proceda, en el plazo de tres meses desde la recepción de la solicitud.

A efectos de lo establecido en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el plazo máximo para dictar y notificar la resolución del procedimiento será de tres meses. Si transcurrido dicho plazo no se hubiese dictado y notificado resolución expresa, se entenderá que el silencio administrativo es desestimatorio, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44.1 de la mencionada Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Quinto. Sanciones.

La actuación fraudulenta por parte de los beneficiarios dará lugar a la pérdida de los derechos de la indemnización que pudiera corresponderles, no pudiendo acceder a las mismas en el plazo de

kalte-ordainak itzuli beharko ditu, eta haren aurka bidezko diren legezko ekintzak egin.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Ingurumen Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatu eta betearazteko ezinbestekoak diren xedapenak emateko, baita, dekretu honetan xedatutako kalte-ordainetarako, sailaren beharren arabera urte bakoitzerako bereizitako kreditua areagotu edo urritzeko ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen da maiatzaren 10eko 37/2005 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan sai arreek abereei eragindako kalteengatik emango diren kalte-ordainen erregimena arautzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau indarrean izango da Diputatuen Kontseiluak onartzen duenetik aurrera, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean noiz argitaratzen den gorabehera. Dena den, foru dekretu honek atzeraeragina du, eta 2008ko urtarrilaren 1az geroztik izandako kalteengatik ere eskatu ahal izango da ordaina, baldin eta kalteok egiaztatuta badaude.

1. eranskina

ABEREA BALIOZTATZEKO BAREMOA, SAIEEN ERASOAK DIRELA-ETA EMANGO DIREN KALTE-ORDAINEN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO

BALIOESPENA

ESPEZIEA	ABERE MOTA	HAUTATUA EURO	EZ HAUTATUA EURO	
ARDIAK	Emeak, 12 hilabete baino gutxiago.	116	71	
	Emeak, 12 eta 24 hilabete artekoak.	129	84	
	Emeak, 2 eta 7 urte artekoak.	174	116	
	Emeak, 2 eta 7 urte artekoak, belarritakorik gabe.	87	58	
	Emeak, 7 urtetik gorakoak.	25	25	
	Hazitarakoak:			
	Hazia jarrita sortutakoak	323	—	
	Ama ezagunekoak eta hazia jarri gabe sortutakoak	226	—	
	Genealogiarik gabek	97	64	
	Haragitarako arkumeak, 12 kilogramo edo gutxiago.	45	30	
	Haragitarako larreko arkumeak.	58	38	
	ABELGORRIAK	Arrak eta emeak, 6 hilabete baino gutxiago.	516	355
		Arrak eta emeak, 6 eta 12 hilabete artekoak.	645	451
Arrak, 12 eta 24 hilabete bitartekoak.		1.290	645	
Emeak, 12 hilabetetik gorakoak eta erditu gabek.		1.129	645	
Arrak, 24 hilabetetik gorakoak.		2.580	1.290	
Emeak, behin edo gehiagotan erditu direnak eta zortzi urtera artekoak		1.290	645	
Emeak, 8 urtetik gorakoak		835	415	
ZALDIAK		Arrak eta emeak, 6 hilabete baino gutxiago.	484	355
	Arrak eta emeak, 6 eta 12 hilabete artekoak.	774	580	
	Arrak, 12 eta 24 hilabete artekoak.	1.290	806	
	Emeak, 12 hilabetetik gorakoak eta erditu gabek.	1.032	806	
	Arrak, 24 hilabetetik gorakoak.	2.580	1.935	
	Emeak, behin edo gehiagotan erditu direnak.	1.290	1.129	
AHUNTZAK	Aurrerakoan hazkuntzarako emeak, 12 hilabete baino gutxiago.	90	30	
	Emeak, 12 hilabete eta 7 urte bitartekoak.	140	45	
	Emeak, 7 urtetik gorakoak.	20	6	
	Haragitarako antxumeak.	55	18	
	Aurrerakoan hazkuntzarako arrak, 12 hilabete baino gutxiagokoak.	100	33	
	Hazitarakoak.	180	60	

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 14a.– Diputatu nagusiordea, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– Ingurumen Saileko foru diputatua, MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA.– Ingurumen zuzendaria, JUAN JOSÉ YARRITU RUIZ DE GORDEJUELA.

5 años, sin perjuicio de reintegrar las indemnizaciones indebidamente percibidas y de las acciones legales pertinentes.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Se faculta al Diputado Foral de Medio Ambiente para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral y, en su caso, para aminorar o incrementar el importe del crédito que se reserve cada año en función de las necesidades del Departamento, para atender las indemnizaciones cuya regulación se establece en el presente Decreto.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto Foral 37/2005, de 10 de mayo, por el que se regulaba el régimen de indemnizaciones de los daños causados por los buitres leonados en el Territorio Histórico de Álava.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su aprobación por el Consejo de Diputados, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y podrán acogerse al mismo los daños comprobados con carácter retroactivo, desde el 1 de enero de 2008.

Anexo 1

BAREMO DE VALORACIÓN DE GANADO A EFECTOS DE ESTABLECER LAS AYUDAS POR DAÑOS OCASIONADOS POR ATAQUES DE BUITRES

VALORACIÓN

ESPECIE	TIPO DE ANIMAL	SELECTO EUROS	NO SELECTO EUROS	
OVINO	Hembras hasta 12 meses de edad.	116	71	
	Hembras de 12 a 24 meses de edad.	129	84	
	Hembras de 2 a 7 años.	174	116	
	Hembras de 2 a 7 años sin crotal.	87	58	
	Hembras mayores de 7 años.	25	25	
	Sementales:			
	Procedentes de I.A.	323	—	
	Con madre conocida sin I.A.	226	—	
	Sin genealogía.	97	64	
	Corderos para carne hasta 12 kg.	45	30	
	Corderos de pasto para carne.	58	38	
BOVINO	Machos y hembras hasta 6 meses.	516	355	
	Machos y hembras de 6 a 12 meses.	645	451	
	Machos de 12 a 24 meses de edad.	1.290	645	
	Hembras de más de 12 meses sin parir.	1.129	645	
	Machos de más de 24 meses.	2.580	1.290	
	Hembras de uno o más partos y hasta 8 años de edad	1.290	645	
	Hembras mayores de 8 años	835	415	
EQUINO	Machos y hembras hasta 6 meses.	484	355	
	Machos y hembras de 6 a 12 meses.	774	580	
	Machos de 12 a 24 meses.	1.290	806	
	Hembras de más de 12 meses y sin parir.	1.032	806	
	Machos de más de 24 meses.	2.580	1.935	
	Hembras con uno o más partos.	1.290	1.129	
CAPRINO	Hembras de recría menores de 12 meses.	90	30	
	Hembras de 12 meses a 7 años.	140	45	
	Hembras mayores de 7 años.	20	6	
	Cabritos para carne.	55	18	
	Machos de recría menores de 12 meses.	100	33	
	Sementales.	180	60	

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 2008.– El Teniente de Diputado General, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– El Diputado Foral de Medio Ambiente, MIKEL MINTEGI AREITIOAURTENA.– El Director de Medio Ambiente, JUAN JOSÉ YARRITU RUIZ DE GORDEJUELA.